

**9/2022 TXOSTENA, IRAILAREN 12KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: EKONOMIA ETA OGASUNEN SAILBURUAREN ETA LURRALDE
PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUAREN AGINDU-
PROIEKTUA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILEKO
KONTRATAZIO MAHAIAREN OSAERA EZARTZEN DUENA.**

I.- AURREKARIAK.

2022ko uztailaren 27an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak txosten bat eskatu zuen, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaia eratzeko egindako agindu-proiektuari buruz.

Eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko lehendakariari egin zitzaion.

Espedientea Tramitagune prozeduren izapidetze elektronikorako aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da, AAAA_ORD_4013/22_08 erreferentziarekin, eta honako dokumentu hauek ditu:

- - Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaia eratzekoa.
- - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaia eratzeko Aginduaren zirriborroa justifikatzeko memoria, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzuen zuzendariak sinatua.



- - Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaez eman behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).2 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, agindu-proposamen honen bidez, kontratazio-mahai iraunkor bat edo hainbat kontratutarako eginkizunak izango dituen sortuko da.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten du Espainiako ordenamendu juridikora, eta, 326. artikuluan, kontratazio-organoari laguntza emateko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lege horren azken xedapenetako lehenaren arabera, aipatutako 326. artikulua ez da oinarritzko legeria.

Uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzkoak, 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko; bigarrena, berriz, haien eginkizunen norainokoa zehazteko.

8. artikulua oro har xedatzen duenez, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatuetan eta negoziatu publizitadedunetan, eta mahai hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskuduna. Horrez gain, lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak. Kontratazio-organoak du mahaia osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena; salbuespen da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria, haren titularrak izendatuko baitu.



Artikulu bereko 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak finkatzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak honako hauek osatuko dituztela: lehendakari batek, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek. Kide horietako bik, bestalde, nahitaez eginkizun hauek bete beharko dituzte hurrenez hurren: kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa eta aholkularitza teknikoa; gainera, kontu-hartzaile bat beharko da edo kontratazio-organoaren ekonomia-eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna esleituta duen pertsona bat. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloan eskumena duen Zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du Kontratazio Mahaian, kontratazio-organo eskudunak izendatuta, zuzendaritza horren titulartasuna duenak proposatuta.

Kontratazio-organoak hala eskatuz gero, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan.

Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, 8. artikulua 3. apartatuaren arabera, izendapena iraunkorra izan daiteke edo kontratu bakoitza esleitzeko berariaz osatutakoa. Ondoren zehazten denez, izendapena iraunkorra bada edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazio-arloan eskumena duen saileko titularraren eta dagokion saileko titularraren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularraren agindu bateratuaren bidez ezarriko da haren osaera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horrez gain, kideen osaera eta identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula zehatzen agirian adieraziko da beti, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da epe honen barruan: kontratatze gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko bilera egin baino gutxienez hamar egun lehenago.

IV.- KONTRATAZIO-MAHAIK KONFIGURATZEA.



Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako sailak berregituratu eta sail bakoitzari esleitutako jardun-arloak eratu ziren, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarenak barne (dekretu horren 11. artikuluan zehaztu ziren haren funtzioak eta jardun-arloak).

Ondoren, urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen. Hala, 6.1 artikuluko d) letran jasotzen denez, Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskudantzien esparruan eta sailburuaren mende zuzenean eta hierarkian, jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea.

Era berean, 6.3 artikuluan honako hau ezartzen da:

«Zerbitzuen zuzendaria izango da sailaren kontratazio-organoa, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 5.000.000 euro baino handiagoa ez den kontratuetan, eta, halaber, berak izango du eskumena, baldintza beretan, bitarteko propioei enkarguak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan aurreikusi bezala. Egiteko horiek betetzean, hari dagokio, muga berarekin, gastuak baimentzea.

Sailaren kontratazio-organoak sailaren kontratazio-mahaiaren laguntza izango du, eta mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako egitekoak beteko ditu».

Era berean, agindu-proiektuari erantsitako justifikazio-memorian adierazten da ezen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera egokitu behar dela haren eraketa arindu eta errazteko.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskatu zaion txostenean aztergai den agindu-proiektuaren bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera iraunkorra ezarri nahi da.



Agindu-proiektuak egokiro errespetatzen ditu modu iraunkorrean edo zenbait kontratutarako eginkizunak betetzeko eraturako kontratazio-mahaietako kideak izendatzeko arau-lerruna eta organo eskudunak, bat etorrira Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan eskatutakoarekin.

Organoen adierazpena argiagoa izan dadin, alde batetik, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua bigarren paragrafoaren adierazpenari hobeto egokitzeko, Aginduaren izenburua hau izatea proposatzen da:” *Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen duena*”.

Proiektu horren 1. artikuluan ezartzen denez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko kontratazio-organoei kontratazio-mahai baten laguntza izango dute esleipen-prozedura irekietan, mugatueta eta negoziatu publizitadedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.

Era berean, Kontratazio Mahaiko lehendakariari dagokionez, 1. artikulua a) letran adierazten denez, Zerbitzu Zuzendaritzako Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketa Arloko kide bat eta aholkulari juridiko bat, bata zein bestea izango dira kontratazio-mahaiko lehendakari. Bi kide horiek elkarren ordezkari izango dute —edo haietako bakoitzaren arloko beste kide batek ordezkatuta—, kargua hutsik dagoenean, bietako bat kanpoan edo gaixorik denean edo bestelako arrazoiren bat suertatzen denean. Hori guztia kontratazio-mahaiaren osaera arintzeko eta errazteko.

Agindu-proiektuaren 1. artikulua d) letran Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da. Kide hori “kontu-hartzailea” da —uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuko lehen paragrafoaren azken tartekian aipatzen da—, eta hark betetzen du kontu-hartzailetzako kontrol-funtzioa, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 4. artikulua arabera (2/2017 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena). Horregatik, proposatzen da agindu-



proiektuaren b) letrako azken tartekia kentzea “[...] kontratazio-organoaren ekonomia-eta aurrekontu-kontrolaren eginkizuna duena”, eta, horren ordeztan, honela jasotzea: << - Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari bat, Bulegoaren titularrak izendatua, kontuhartzaitzako kontrol-funtzioa beteko duena>>.

Agindu-proiektuaren 1. artikularen e) letran hauxe jasotzea proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: “informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) arloko zuzendaritza eskudunaren ordezkari bat, titularrak proposatu eta kontratazio-organoak izendatua, martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu)”.

Era berean, proposatzen da hauxe izatea agindu-proiektuaren xedapen indargabetzailearen testua *“indargabetuta geratzen da Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko abenduaren 17ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera eratzten duena”*.

Azaldutakoagatik guztiagatik, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren agindu-proiektuari, zeinaren bidez Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaiaren osaera ezartzen baita, betiere haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.